
11. Kalkulatu f funtzioaren mutur absolutuak $[0,2]$ tartean, f honako funtzio hau bada:
$$f(x) = \int_0^x \frac{t-1}{1+t^2}\, dt.$$

12. Kalkulatu $\int_{\frac{\pi}{2}}^{\pi} \left(\frac{d}{dx}(t \sin x)\right) \; dx$.

13. Aurkitu kalkulu honen akatsa:
$$\int_0^{\sqrt{3}} \frac{dx}{1+x^2} = \frac{1}{2} \arctan \frac{2x}{1-x^2}\bigg|_0^{\sqrt{3}} = -\frac{\pi}{6}.$$

14. Frogatu honako berdintza hauek, aldagai-aldaketa egokiak erabiliz.

(i) $\displaystyle\int_0^4 \frac{dt}{1+\sqrt{t}} = \int_0^2 \frac{2t}{1+t}\,dt$

(ii) $\displaystyle\int_a^b f(x)\,dx = k\int_{a/k}^{b/k} f(kt)\,dt,\ k \neq 0$

(iii) $\displaystyle\int_0^{\ln 5} \frac{e^x\sqrt{e^x-1}}{e^x+3}\,dx = \int_1^5 \frac{\sqrt{t-1}}{t+3}\,dt$

15. (i) Frogatu berdintza hau:

$$\int_a^b f(x)dx = \int_{a+c}^{b+c} f(x-c)dx.$$

(ii) Izan bedi f $[-a,a]$ tartean jarraitua. Frogatu:

$$f\ [-a,a]\ \text{ tartean bikoitia bada } \Longrightarrow \int_{-a}^{a} f(x)dx = 2\int_0^a f(x)dx \text{ dela.}$$

$$f\ [-a,a]\ \text{ tartean bakoitia bada } \Longrightarrow \int_{-a}^{a} f(x)dx = 0 \text{ dela.}$$

16. Kalkulatu integral hauek:

(i) $\displaystyle\int_0^{\frac{\pi}{3}} \tan x\,dx$

(ii) $\displaystyle\int_0^{\frac{\pi}{2}} \sin x\cos^2 x\,dx$

KALKULU DIFERENTZIALA ETA INTEGRALA I

6.3. Gaia. INTEGRAZIOA: INTEGRAL MUGATUAREN APLIKAZIO GEOMETRIKOAK

Ariketak

1. Jarraian agertzen diren funtzioen bidez definitutako eskualdeen azalerak kalkula itzazu:

   (i) $xy = a^2$ hiperbolak eta OX ardatzak, $a > 0$ izanik eta $x \in [a, 2a]$.

   (ii) $y = 4 - x^2$ parabolak eta OX ardatzak mugatutako eskualdea.

   (iii) $y^2 = 9x$ eta $y = 3x$ kurben arteko eremua.

   (iv) $y^2 = 2px$ eta $x^2 = 2py$ parabolen arteko eremua, $p > 0$ izanik.

   (v) $y = x^3$, $y = 2x$ eta $y = x$ kurbek definitzen duten eremua.

   (vi) $y = \cos x$, $y = 0$, $x \in [0, 2\pi]$

   (vii) $xy = a$, $xy = 2a$, $y = x$ eta $y = 2x$ kurben arteko eremua, $a > 0$ izanik.

   Emaitzak: (i) $a^2 \ln 2$; (ii) $\dfrac{32}{3}$; (iii) $\dfrac{1}{2}$; (iv) $\dfrac{4p^2}{3}$; (v) $\dfrac{3}{2}$; (vi) 4; (vii) $a \ln 2$.

2. Polarretan adierazitako kurbek mugatzen duten azalerak kalkulatu:

   (i) Kalkula ezazu $\rho^2 = a^2 \cos 2\theta$ polarretan definitutako lemniskataren azalera.

   (ii) Kalkula ezazu $\rho = a(1 - \cos\theta)$ polarretan definitutako kardioidearen azalera, $a > 0$ izanik.

   (iii) Kalkula ezazu $\rho = a \sin 3\theta$ polarretan definitutako hiru hostotako larrosaren azalera, non $a > 0$ den.

   (iv) Kalkula ezazu $\rho = 2 + \sin\theta$ kurbak mugatutako eskualdearen azalera.

   Emaitzak: (i) a^2; (ii) $\dfrac{3\pi a^2}{2}$; (iii) $\dfrac{\pi a^2}{4}$; (iv) $\dfrac{9\pi}{2}$.

3. Polarretan emandako bi kurben arteko azalerak kalkulatu:

   (i) Kalkula ezazu $\rho = 2\cos\theta$ ekuazioa duen zirkunferentziaren barruan baina $\rho = 1$ zirkunferentziaren kanpoan geratzen den eskualdearen azalera.

   (ii) Kalkula ezazu $\rho = 1 + \cos\theta$ kurbaren barrualdean baina $\rho = 1 - \cos\theta$ kurbaren kanpoaldean geratzen den eskualdearen azalera.

   (iii) Kalkula ezazu $\rho = 1 - \sin\theta$ eta $\rho = \sin\theta$ kurben artean geratzen den eskualdearen azalera.

   Emaitzak: (i) $\dfrac{\pi}{3} + \dfrac{\sqrt{3}}{2}$; (ii) 4; (iii) $\dfrac{7\pi}{12} - \sqrt{3}$.

4. Ematen diren funtzioen grafikoen arku-luzerak kalkula itzazu agertzen diren tarteetan:

   (i) $y = \ln x$, $x \in [\sqrt{3}, \sqrt{8}]$. *Em.:* $1 + \dfrac{1}{2}\ln\dfrac{3}{2}$

   (ii) $y = x^{3/2}$, $0 \le x \le 4$. *Em.:* $\dfrac{8}{27}(10\sqrt{10} - 1)$

5. Hiru dimentsioko gorputz baten oinarria $y = x^2$ eta $y = 4$ kurbek osatzen duten eremua da. Kalkula ezazu gorputzaren bolumena OX ardatzarekiko perpendikularrak diren sekzioak karratuak baldin badira.

Emaitza: $\dfrac{512}{15}$

6. Jarraian ematen diren funtzioen grafikoak OX ardatzarekiko biratzean lortzen diren biraketa-gorputzen bolumenak kalkula itzazu:

   (i) $y^2 = 2px$, $x \in [0, a]$, $p > 0$. *Em.:* $\pi p a^2$

   (ii) $y = \sin x$, $0 \leq x \leq \pi$. *Em.:* $\dfrac{\pi^2}{2}$

   (iii) $y = 2x$, $y = x$, $x \in [0, 1]$. *Em.:* π

   (iv) $y = \sqrt{x}$, $y = x$, $x \in [0, 1]$. *Em.:* $\dfrac{\pi}{6}$

   (v) $x^2 + (y - b)^2 = a^2$, $a < b$. *Em.:* $2a^2 b\pi^2$

7. r erradioko esfera bat bi plano paralelorekin ebakitzen da, bata ekuatorearen gainetik a unitatetara eta bestea ekuatorearen azpitik b unitatetara. Kalkula ezazu bi plano hauen artean geratzen den esferaren zatiaren bolumena, $0 < a, b < r$ izanik.

Emaitza: $\pi r^2(a + b) - \dfrac{\pi}{3}(a^3 + b^3)$.

KALKULU DIFERENTZIALA ETA INTEGRALA I

6.4. Gaia: INTEGRAZIOA: INTEGRAL INPROPIOAK

Ariketak

1. Aztertu honako integral hauetatik zeintzuk diren konbergenteak eta zeintzuk ez. Konbergenteak direnean, integralaren balioa kalkulatu.

(i) $\displaystyle\int_1^2 \frac{dx}{x\ln x}$ (ii) $\displaystyle\int_0^\infty \frac{dx}{x^2+4}$

(iii) $\displaystyle\int_0^\infty e^{px}\,dx$ (iv) $\displaystyle\int_{-\infty}^0 xe^x\,dx$

(v) $\displaystyle\int_{-1}^1 \frac{dx}{\sqrt{1-x^2}}$ (vi) $\displaystyle\int_0^\infty \frac{\arctan x}{x^2+1}\,dx$

(vii) $\displaystyle\int_0^1 \frac{dx}{\sqrt{x}}$ (viii) $\displaystyle\int_{-\infty}^\infty \frac{dx}{x^2+4x+9}$

(ix) $\displaystyle\int_0^\infty \sin x\,dx$ (x) $\displaystyle\int_0^3 \frac{dx}{(x-1)^2}$

Emaitzak: (i) Dib.; (ii) $\dfrac{\pi}{4}$; (iii) $-\dfrac{1}{p}$, $p<0$ bada, dib. $p\geq 0$ denean; (iv) -1; (v) π; (vi) $\dfrac{\pi^2}{8}$; (vii) 2; (viii) $\dfrac{\pi}{\sqrt{5}}$; (ix) Dib.; (x) Dib.

2. (i) Aurkitu f funtzio jarraitu bat $[0,\infty)$ tartean, non $\displaystyle\int_0^\infty f(x)\,dx$ ez den existitzen, hau da $\displaystyle\lim_{y\to+\infty}\int_0^y f(x)\,dx$ ez den finitua ez eta infinitua ere.

   (ii) Aurkitu f funtzio jarraitu bat $(0,1]$ tartean, non $\displaystyle\int_0^1 f(x)\,dx$ ez den existitzen, hau da $\displaystyle\lim_{z\to0^+}\int_z^1 f(x)\,dx$ ez den finitua ez eta infinitua ere.

3. Erabaki zeintzuk izan behar duten a eta b parametroen balioek honako berdintza hau bete dadin:

$$\int_1^\infty \left(\frac{2x^2+bx+a}{x(2x+a)}-1\right)dx = 1.$$

Emaitza: $a=b=2(e-1)$.

4. Aztertu honako integral inpropio hauen konbergentzia:

(i) $\displaystyle\int_1^\infty \frac{dx}{x^2+\sqrt[3]{x^4+1}}$ (ii) $\displaystyle\int_0^\infty \frac{x\,dx}{\sqrt{x^5+1}}$

(iii) $\displaystyle\int_{\frac{\pi}{2}}^\infty \frac{\sin x\,dx}{x^2}$ (iv) $\displaystyle\int_0^1 x^{-\frac{3}{2}}\sin x\,dx$

(v) $\displaystyle\int_0^\infty x\sin x\,dx$ (vi) $\displaystyle\int_0^1 \frac{dx}{(2-x)\sqrt{1-x}}$

Emaitzak: (i) Konb; (ii) Konb; (iii) Konb; (iv) Konb; (v) Dib; (vi) Konb.

5. Frogatu honako integral honen bidez definitutako Eulerren Γ funtzioa konbergentea dela $p > 0$ guztietarako:

$$\Gamma(p) = \int_0^{\infty} e^{-x} x^{p-1}\, dx.$$

6. Eulerren β funtzioa integral inpropio honen bidez definitzen da:

$$\beta(p,q) = \int_0^1 x^{p-1}(1-x)^{q-1}\, dx.$$

   Egiaztatu konbergentea dela $p > 0$ eta $q > 0$ direnean.

7. Aztertu integral hauen izaera, agertzen diren $n \in \mathbf{N}$ eta $\alpha, p, q \in \mathbf{R}$ parametroen balioen arabera:

(i) $\displaystyle\int_0^1 \frac{dx}{\sqrt{(1-x^3)^n}}$ (ii) $\displaystyle\int_0^{\frac{\pi}{2}} \frac{1-\cos x}{x^n}\, dx$

(iii) $\displaystyle\int_0^{\infty} \frac{1-e^{-x}}{x^{\alpha}}\, dx$ (iv) $\displaystyle\int_0^{\infty} \frac{\arctan x}{x^{\alpha}}\, dx$

(v) $\displaystyle\int_0^{\infty} \frac{\cos(\alpha x)\, dx}{1+x^n}$ (vi) $\displaystyle\int_0^{\pi/2} \frac{dx}{\sin^p x \cos^q x}$

Emaitzak: (i) Konb $\Longleftrightarrow n = 1$; (ii) Konb $\Longleftrightarrow n = 1, 2$;
(iii) Konb $\Longleftrightarrow \alpha \in (1, 2)$; (iv) Konb $\Longleftrightarrow 1 < \alpha < 2$;
(v) $\alpha \neq 0$ denean, konb $\forall n \in \mathbf{N}$ eta $\alpha = 0$ denean, konb $\forall n \geq 2$;
(vi) Konb $\Longleftrightarrow p < 1$ eta $q < 1$.

8. Izan bedi $f(x) = \dfrac{3x}{x^2+3}$.

   (i) Frogatu f-ren grafikoak eta OX ardatzak mugatzen duten eskualdearen azalera ez dela finitua.

   (ii) Kalkulatu f-ren grafikoa OX ardatzarekiko biratzean lortzen den gorputzaren bolumena.

Emaitza: $\dfrac{9\pi^2}{2\sqrt{3}}$.

KALKULU DIFERENTZIALA ETA INTEGRALA I

7. Gaia: FUNTZIO-SEGIDAK. FUNTZIO-SERIEAK. BERRETURA-SERIEAK

Ariketak

1. Azter ezazu $\{f_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ funtzio-segidaren konbergentzia uniformea $[-1,1]$ tartean, f_n honako funtzio hau izanik:
$$f_n(x) = \begin{cases} 1, & -1 \le x < 0 \text{ bada,} \\ 1-nx, & 0 \le x < 1/n \text{ bada,} \\ 0, & 1/n \le x \le 1 \text{ bada.} \end{cases}$$

2. Azter ezazu funtzio-segida hauen konbergentzia puntuala eta uniformea ondoan agertzen diren D eremuetan:

   (i) $f_n(x) = \sqrt[n]{x}$, $D = [0,1]$ (ii) $f_n(x) = \dfrac{x}{n}$, $D = \mathbb{R}$

   (iii) $f_n(x) = \dfrac{x}{n}e^{-x/n}$, $D = [0,\infty)$ (iv) $f_n(x) = \dfrac{1-x^{2n}}{1+x^{2n}}$, $D = \mathbb{R}$

3. Izan bedi $f_n(x) = e^{-nx}$, $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Froga ezazu $\{f_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ funtzio-segida $[a,\infty)$ tartean uniformeki konbergentea dela $a > 0$ guztietarako baina $[0,\infty)$ tartean, aldiz, konbergentzia ez dela uniformea.

4. Izan bedi $f_n(x) = x^2e^{-nx}$, $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Froga ezazu $\{f_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ funtzio-segida $[0,\infty)$ tartean uniformeki konbergentea dela.

5. Izan bedi $f_n(x) = n^2x^2e^{-nx}$, $n \in \mathbb{N}$ guztietarako. Froga ezazu $\{f_n\}_{n\in\mathbb{N}}$ funtzio-segida $[a,\infty)$ tartean uniformeki konbergentea dela $a > 0$ guztietarako, baina $[0,\infty)$ tartean konbergentzia ez dela uniformea.

6. Azter ezazu funtzio-serie hauen konbergentzia puntuala eta uniformea ondoan adierazten diren D eremuetan:

   (i) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{\sin^2(nx)}{n^2}$, $D = \mathbb{R}$ (ii) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{\sin x}{(1+\sin x)^n}$, $D = [0,\pi]$

   (iii) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{x^2}{(1+x^2)^n}$, $D = \mathbb{R}$ (iv) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{x}{(1+(n-1)x)(1+nx)}$, $D = [0,\infty)$

7. Izan bedi $\sum_{n=1}^{\infty} a_n$ zenbaki-serie absolutuki konbergentea. Froga ezazu $\sum_{n=1}^{\infty} a_n \sin(nx)$ eta $\sum_{n=1}^{\infty} a_n \cos(nx)$ funtzio-serieak uniformeki konbergenteak direla $\mathbb{R}$-n.

8. Izan bedi
$$f(x) = \sum_{n=1}^{\infty} \frac{\sin(nx)}{n^3}, \quad x \in \mathbb{R}.$$
   Froga ezazu f-ren deribatua jarraitua dela $\mathbb{R}$-n.

9. Izan bitez $\sum a_nx^n$ berretura-seriea, haren konbergentzia-erradioa 2 izanik, eta $k \in \mathbb{N}$ zenbaki finkoa. Kalkulatu $\sum a_n^kx^n$ eta $\sum a_nx^{kn}$ serieen konbergentzia-erradioak.

10. Berretura-serie hauetarako, kalkula ezazu konbergentzia-tartea eta konbergentzia-tarte horien muturretako portaera aztertu.

(i) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{n}{n+1}\left(\frac{x}{2}\right)^n$ (ii) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty}\left(1+\frac{1}{a^n+b^n}\right)x^n,\ a \geq b > 0$

(iii) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \ln n\, x^n$ (iv) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty}\left(1+\frac{1}{n}\right)^n \frac{x^n}{n!}$

(v) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{x^n}{2^n n^2}$ (vi) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{n!}{n^n} x^n$

(vii) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty}\left(\frac{nx}{n+1}\right)^n$ (viii) $\displaystyle\sum_{n=0}^{\infty}(-1)^n \frac{\sqrt[3]{n+2}}{n+1}(x-2)^n$

(ix) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty} \frac{(x+5)^{2n-1}}{2n\cdot 4^n}$ (x) $\displaystyle\sum_{n=1}^{\infty}(-1)^{n-1}\frac{x^n}{n}$

11. Izan bedi

$$f(x) = \sum_{n=0}^{\infty} \frac{1}{n!(1+2^n x)}, \quad x \geq 0.$$

Froga ezazu f-k ordena guztietako deribatuak dituela $x=0$ puntuan eta

$$f(0) + f'(0)x + \frac{f''(0)}{2!}x^2 + \cdots + \frac{f^{(n)}(0)}{n!}x^n + \ldots$$

seriea onbergentea dela soilik $x=0$ puntuan.

12. Eman ezazu $g(x) = \dfrac{1}{2-x}$ funtzioa $x-1$, x eta $1/x$ funtzioen berretura-serie gisa. Kasu bakoitzean konbergentzi-tartea eman.

13. Eman itzazu funtzio hauek x-ren berretura-serie gisa eta kalkula itzazu lortzen diren serieen konbergentzia-tarteak:

(i) $f(x) = \dfrac{x^2+3}{x^2-1}$ (ii) $f(x) = \dfrac{3x-5}{x^2-4x+3}$

(iii) $f(x) = \dfrac{1}{\sqrt{4-x^2}}$ (iv) $f(x) = \ln(1+x-2x^2)$

(v) $f(x) = \ln\left(x+\sqrt{1+x^2}\right)$ (vi) $f(x) = \sin^2 x$

14. Eman ezazu $f(x) = \sqrt{1+x}$ funtzioa $(x-1)$-en berretura-serie gisa. Zer tartetan balio du garapen horrek?

15. Eman $f(x) = \dfrac{1}{x^2+3x+2}$ funtzioa $(x-4)$-ren berretura-serie gisa. Zer tartetan balio du garapen horrek?

16. Eman ezazu $f(x) = \displaystyle\int_0^x \cos t^2\, dt$ funtzioaren seriezko garapena x-en berreturetan eta erabaki ezazu noiz den konbergentea lortutako seriea.

KALKULU DIFERENTZIALA ETA INTEGRALA I

8. Gaia: ALDAGAI ANITZEKO FUNTZIOAK

Ariketak

1. Marraztu honako funtzio hauen definizio-eremuak:

   (i) $f(x,y) = \arcsin \dfrac{x}{y^2} + \arcsin(1-y)$;

   (ii) $f(x,y) = \sqrt{\sin(x^2+y^2)}$;

   (iii) $f(x,y) = \arccos \dfrac{1}{\sqrt{x^2+y^2}}$;

   (iv) $f(x,y) = \dfrac{\ln(x^2+y^2-1)}{\sqrt{4x^2-y^2}}$;

   (v) $f(x,y) = \sqrt{x^2-4} + \sqrt{4-y^2}$.

2. Kalkula itzazu limite hauek, existitzen badira:

   (i) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{\sin(x^3+y^3)}{x^2+y^2}$

   (ii) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{e^{-\frac{1}{x^2+y^2}}}{x^4+y^4}$

   (iii) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{x^2+y^2}{|x|+|y|}$

   (iv) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} (1+x^2y^2)^{-\frac{1}{x^2+y^2}}$

   (v) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{2x^2-y^2}{x^2+3y^2}$

   vi) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{2xy}{x^2+y^2}$

   (vii) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} (x^2+y^2)\sin\frac{1}{xy}$

   (viii) $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \frac{x|y|}{\sqrt{x^2+y^2}}$

3. Kalkulatu $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} f(x,y)$ honako funtzio hauetarako

   (i) $f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{1}{x}\sin(xy), & x \neq 0 \text{ bada,} \\ y, & x = 0 \text{ bada.} \end{cases}$

   (ii) $f(x,y) = \begin{cases} x\sin\dfrac{x}{y}, & y \neq 0 \text{ bada,} \\ 0, & y = 0 \text{ bada.} \end{cases}$

4. Izan bedi

$$\mathbf{f}(x,y) = \begin{cases} \left(\dfrac{x^2y}{x^2+y^2}, \sin(x+y)\right), & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada,} \\ (0,0), & (x,y) = (0,0) \text{ bada.} \end{cases}$$

   Kalkulatu $\displaystyle\lim_{(x,y)\to(0,0)} \mathbf{f}(x,y)$.

5. Aztertu funtzio hauen jarraitutasuna:

(i) $f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{x+\sin(x+y)}{x+y}, & x+y \neq 0 \text{ bada}, \\ 0, & y = -x \text{ bada}. \end{cases}$

(ii) $f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{x^2y^2}{x^4+y^4}, & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada}, \\ 0, & (x,y) = (0,0) \text{ bada}. \end{cases}$

(iii) $f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{2x^3-y^3}{x^2+3y^2}, & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada}, \\ 0, & (x,y) = (0,0) \text{ bada}. \end{cases}$

6. Izan bedi

$$\frac{\sin(x^2+y^2)}{x^2+y^2}, \quad \forall\,(x,y) \neq (0,0).$$

Defini ezazu $f(0,0)$ balioa f funtzioa $(0,0)$ puntuan jarraitua izan dadin.

7. Izan bedi

$$f(x,y) = \frac{1-\cos\sqrt{x^2+y^2}}{x^2+y^2}, \quad \forall\,(x,y) \neq (0,0).$$

Defini ezazu $f(0,0)$ balioa f funtzioa $(0,0)$ puntuan jarraitua izan dadin.

8. Izan bedi $f(x,y) = e^{xy}$ funtzioa. Froga ezazu

$$x\frac{\partial f}{\partial x} = y\frac{\partial f}{\partial y}$$

egiaztatzen dela.

9. Kalkulatu honako funtzio hauen deribatu partzialak:

(i) $f(x,y) = xe^{x^2+y^2}$;

(ii) $f(x,y) = e^{xy}\ln(x^2+y^2)$;

(iii) $f(x,y) = e^{xy}\cos y \sin x$.

10. Izan bedi

$$f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{xy}{x^2+y^2}, & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada}, \\ 0, & (x,y) = (0,0) \text{ bada}. \end{cases}$$

(a) Kalkulatu f-ren deribatu partzialak $(2,3)$ puntuan.

(b) Kalkulatu f-ren deribatu partzialak $(0,0)$ puntuan.

(c) Kalkulatu f-ren edozein norabiderekiko deribatuak $(0,0)$ puntuan.

(d) Froga ezazu f funtzioa ez dela jarraitua $(0,0)$ puntuan.

11. Izan bedi

$$f(x,y) = \begin{cases} (x^2+y^2)\sin\dfrac{1}{\sqrt{x^2+y^2}}, & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada}, \\ 0, & (x,y) = (0,0) \text{ bada}. \end{cases}$$

Kalkulatu edozein norabiderekiko deribatuak jatorrian. Aztertu f-ren diferentxziagarritasuna jatorrian.

12. Kontsidera dezagun $f(x,y) = e^{2x+3y}$ funtzioa. Aztertu ea f funtzioa C^1 klasekoa den. Kalkulatu f-ren gradientea jatorrian.

13. Kalkulatu honako funtzio hauen deribatuak finkatutako puntuetan eta emandako bektore unitoarioarekiko:

    (i) $f(x,y) = x + 2xy - 3y^2,\ \ P = (1,2),\ \ \mathbf{u} = (3/5, 4/5);$

    (ii) $f(x,y) = \ln(\sqrt{x^2+y^2}),\ \ P = (1,0),\ \ \mathbf{u} = (2/\sqrt{5}, 1/\sqrt{5});$

    (iii) $f(x,y) = e^x \cos(\pi y),\ \ P = (0,-1),\ \ \mathbf{u} = (-1/\sqrt{5}, 2/\sqrt{5}).$

14. Kalkulatu $z = x^2 + y^3$ gainazalaren plano ukitzailea $(3,1,10)$ puntuan.

15. Izan bedi

$$f(x,y) = \begin{cases} \dfrac{x^2-y^2}{x^2+y^2}, & (x,y) \neq (0,0) \text{ bada,} \\ 0, & (x,y) = (0,0) \text{ bada.} \end{cases}$$

    (a) Aztertu f-ren jarraitutasuna.

    (b) Aztertu f-ren diferentziagarritasuna.

    (c) Kalkulatu $(0,0)$ puntuan edozein bektore unitariorekiko f-ren deribatuak, existitzen badira.

    (d) Kalkulatu $(2,1)$ puntuan edozein bektore unitariorekiko f-ren deribatuak, existitze badira.

    (e) Kalkulatu f funtzioaren grafikoaren plano ukitzailea $P = (2,1,3/5)$ puntuan.

4. GAIA - FUNTZIOAK ETA JARRAITUTASUNA

KDI I - ARIKETAK

Funtzioei buruzko oinarrizko kontzeptuak

1. Kalkula ezazu f funtzioaren definizio-eremua honako kasu bakoitzean:

   (a) $f(x) = \sqrt{|x| - 2x}$, (b) $f(x) = \sqrt{1 - \sqrt{1 - x^2}}$,

   (c) $f(x) = \sqrt{\sin x}$, (d) $f(x) = \ln\big(x(x^2 + x - 4)\big)$,

   (e) $f(x) = \dfrac{1}{x-1} + \dfrac{1}{x-2}$, (f) $f(x) = \sqrt{1 - x^2} + \sqrt{x^2 - 1}$,

   (g) $f(x) = \sqrt{-x} + \dfrac{1}{\sqrt{x+2}}$, (h) $f(x) = \ln\left(\dfrac{x^2 - 3x + 2}{x + 1}\right)$.

2. Izan bitez

$$f(x) = \begin{cases} 1 - x, & x < 0 \text{ denean}, \\ x + 1, & x \geqslant 0 \text{ denean}, \end{cases} \qquad g(x) = \begin{cases} x^2, & x \leqslant 1 \text{ denean}, \\ \frac{1}{x}, & x > 1 \text{ denean}, \end{cases}$$

   $h(x) = x^2$, $T_1(x) = x + 1$ eta $T_{-1}(x) = x - 1$. Kalkula itzazu honako funtzioak:

   (a) $T_1 \circ T_{-1}$ eta $T_{-1} \circ T_1$, (b) $T_{-1} \circ h \circ T_1$, (c) $f \circ h$,

   (d) $g \circ h$, (e) $f + g$, (f) $T_{-1} \circ f$,

   (g) $g \circ T_1$, (h) $f \circ g$, (i) $g \circ f$.

3. Izan bitez f, g eta h edozein funtzio. Ondo definituta dauden kasuetan, erabaki ezazu honako propietateak betetzen diren ala ez, kasu bakoitzean froga edo kontradibidea emanez:

   (a) $f \circ (g + h) = f \circ g + f \circ h$, (b) $(g + h) \circ f = g \circ f + h \circ f$,

   (c) $\dfrac{1}{f \circ g} = \dfrac{1}{f} \circ g$, (d) $\dfrac{1}{f \circ g} = f \circ \left(\dfrac{1}{g}\right)$.

4. Kalkula itzazu hurrengo funtzioen definizio-eremuak eta erabaki injektiboak diren ala ez. Hala bada, kalkulatu alderantzizko funtzioak dagozkien eremuetan.

   (a) $f(x) = 3x - 5$, (b) $f(x) = \dfrac{x}{x+1}$,

   (c) $f(x) = \sqrt[5]{1 - x^3} + 2$, (d) $f(x) = \dfrac{e^x}{e^x + 1}$.

5. Funtzio bat, f, **bikoitia** dela diogu $f(x) = f(-x)$ betetzen bada eta **bakoitia** dela $f(-x) = -f(x)$ bada.

(a) Erabaki $f+g$ bikoitia edo bakoitia den f eta g bikoitiak edo bakoitiak diren lau kasu desberdinetan.

(b) Egin gauza bera $f \cdot g$ eta $f \circ g$ funtzioekin.

(c) Froga ezazu h edozein funtziorako $h = E + O$ betetzen duten E funtzio bikoiti bat eta O funtzio bakoiti bat aurki daitezkeela, eta gainera bakarrak direla. E funtzioari h-ren **parte bikoitia** deritzo, eta O-ri aldiz, h-ren **parte bakoitia**.

6. Izan bitez f eta g bi funtzio. Horietatik abiatuta, honako funtzio berriak defini ditzakegu:

$$\max(f,g)(x) = \max(f(x), g(x)),$$

$$\min(f,g)(x) = \min(f(x), g(x)),$$

$$|f|(x) = |f(x)|.$$

(a) Adieraz itzazu $\max(f,g)$ eta $\min(f,g)$ funtzioak $|f|$ funtzioaren bitartez.

(b) Frogatu $f = \max(f,0) + \min(f,0)$ betetzen dela. Bi funtzio hauei f funtzioaren **parte positiboa** eta **parte negatiboa** deritze.

(c) Funtzio bat, f, **ez-negatiboa** dela esaten da $f(x) \geqslant 0$ betetzen badu. Froga ezazu f edozein funtzio $f = g-h$ eran idatz daitekeela, g eta h ez-negatiboak direlarik.

7. Deskriba itzazu f funtzioaren grafikoaren ezaugarri nagusiak

(a) f bakoitia denean,

(b) f bikoitia denean,

(c) f ez-negatiboa denean, eta

(d) f periodikoa denean (f ***a*-periododun funtzio periodikoa** da $f(x) = f(x+a)$ betetzen bada x guztietarako).

8. Demagun f funtzioaren grafikoa ezagutzen duzula. Marraz ezazu g-ren grafikoa f-renaren arabera honako kasu bakoitzean, c konstante erreal bat izanik:

(a) $g(x) = f(x) + c$, (b) $g(x) = f(x+c)$, (c) $g(x) = cf(x)$,

(d) $g(x) = f(cx)$, (e) $g(x) = f(1/x)$, (f) $g(x) = f(|x|)$,

(g) $g(x) = |f(x)|$, (h) $g(x) = \max(f,0)(x)$, (i) $g(x) = \min(f,0)(x)$,

(j) $g(x) = \max(f,1)(x)$.

Hasierako f-ren grafikorako zerorrek marraztutako edozein grafiko erabil dezakezu, adierazpen espliziturik eman beharrik gabe.

Funtzioen limiteak

9. Kalkula itzazu hurrengo limiteak, $a \in \mathbb{R}$ eta $n \in \mathbb{N}$ balioentzako:

   (a) $\displaystyle\lim_{x\to a} \frac{x^2-(a+1)x+a}{x^3-a^3}$,

   (b) $\displaystyle\lim_{x\to\infty} \left(\sqrt[3]{(x+1)^2}-\sqrt[3]{(x-1)^2}\right)$,

   (c) $\displaystyle\lim_{x\to 1} \frac{x+x^2+\ldots+x^n-n}{x-1}$,

   (d) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\ln(x+a)-\ln a}{x}$, $\quad a>0$,

   (e) $\displaystyle\lim_{x\to 8} \frac{\sqrt{2x+9}-5}{\sqrt[3]{x}-2}$,

   (f) $\displaystyle\lim_{x\to 0^+} \sqrt{\cos\sqrt{x}}$,

   (g) $\displaystyle\lim_{x\to\infty} x\left(\ln(x+1)-\ln x\right)$,

   (h) $\displaystyle\lim_{x\to\infty} \left(\sqrt{x+\sqrt{x}}-\sqrt{x-\sqrt{x}}\right)$.

10. Kalkula itzazu honako limiteak:

   (a) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{1-\cos x}{x}$,

   (b) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\cos mx-\cos nx}{x^2}$, $\quad n,m\in\mathbb{N}$,

   (c) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \left(1+x^2\right)^{\cot^2 x}$,

   (d) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\tan x-\sin x}{x^3}$,

   (e) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\sqrt{1+\tan x}-\sqrt{1+\sin x}}{x^3}$,

   (f) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\sqrt{1-\cos x^2}}{1-\cos x}$,

   (g) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{\ln\cos x}{x^2}$,

   (h) $\displaystyle\lim_{x\to 0^+} \left(1+\tan^2\sqrt{x}\right)^{\frac{1}{2x}}$,

   (i) $\displaystyle\lim_{x\to\pi} \frac{1-\sin(x/2)}{\pi-x}$,

   (j) $\displaystyle\lim_{x\to\infty} \left(\frac{x^2-2x+1}{x^2-4x+2}\right)^x$,

   (k) $\displaystyle\lim_{x\to a} \frac{\tan x-\tan a}{x-a}$, $\quad a\in\mathbb{R}$,

   (l) $\displaystyle\lim_{x\to \frac{\pi}{2}} (\sin x)^{\tan x}$,

   (m) $\displaystyle\lim_{x\to \frac{\pi}{3}} \frac{\sin(x-\pi/3)}{1-2\cos x}$,

   (n) $\displaystyle\lim_{x\to 0} \frac{e^{\sin 2x}-e^{\sin x}}{x}$.

Jarraitutasuna

11. Izan bedi f 0 puntuan jarraitua den funtzio bat.

   (a) Demagun $n\in\mathbb{N}$ balio guztietarako

   $$f\left(\frac{\sin n}{n}\right)=5n^2\left(\ln\left(n^2+1\right)-\ln\left(n^2-1\right)\right)$$

   betetzen duela. Kalkula ezazu $f(0)$.

   (b) Posible al da f-k goiko formula bete beharrean

   $$f\left(\frac{1}{n}\right)=\frac{1}{n^2+1} \qquad \text{eta} \qquad f\left(-\frac{1}{n}\right)=\frac{n^2}{n^2+1}$$

   betetzea?

12. Erabaki zein diren $A, B, a, b \in \mathbb{R}$ balio egokiak hurrengo funtzioak jarraituak izan daitezen:

    (a)
    $$f(x) = \begin{cases} -2\sin x, & x \leqslant -\frac{\pi}{2} \text{ denean,} \\ A\sin x + B, & -\frac{\pi}{2} < x < \frac{\pi}{2} \text{ denean,} \\ \cos x, & x \geqslant \frac{\pi}{2} \text{ denean.} \end{cases}$$

    (b)
    $$g(x) = \begin{cases} x^2 + 1, & x \leqslant 0 \text{ denean,} \\ |x - a|, & 0 < x < 3 \text{ denean,} \\ \frac{x^2+3x}{x+b}, & x \geqslant 3 \text{ denean.} \end{cases}$$

13. Izan bedi a zenbaki erreal bat. Bere **parte osoa**
    $$[a] = \max\{x \in \mathbb{Z} \mid x \leqslant a\}$$
    da, eta bere **parte frakzionarioa**, berriz,
    $$\{a\} = a - [a].$$
    Adierazi grafikoki $f(x) = [x]$, $g(x) = \{x\}$ eta $h(x) = [1/x]$ funtzioak eta aztertu bere jarraitutasuna.

14. Froga ezazu maila bakoitiko polinomio orok gutxienez erro erreal bat duela, eta erabaki emaitza honek maila bikoitiko polinomioentzat ere balio duen ala ez.

15. Izan bedi f funtzio jarraitu eta positibo bat (hau da, $f(x) > 0$ betetzen duena x guztietarako), eta demagun $\lim\limits_{x\to-\infty} f(x) = 0 = \lim\limits_{x\to+\infty} f(x)$ betetzen dela. Froga ezazu f-k maximo bat duela (hau da, existitzen dela y balio bat non $f(x) \leqslant f(y)$ betetzen den x guztietarako).

16. Frogatu honako ekuazioek gutxienez soluzio erreal bat dutela:

    (a) $\sin x = x - 1,$

    (b) $x^{2019} + \dfrac{2018}{1 + x^2 + \sin^2 x} = 2017.$

17. (a) Izan bedi $[0,1]^2 = \{(x,y) \in \mathbb{R}^2 \mid 0 \leqslant x \leqslant 1, 0 \leqslant y \leqslant 1\}$ karratua. Demagun f funtzioa $[0,1]$ tartean jarraitua dela eta bertan $f(x) \in [0,1]$ betetzen dela. Frogatu kasu horretan f-ren grafikoak $[0,1]^2$ karratuko bi diagonalak ebakitzen dituela. (Marrazki batekin propietatea begi-bistakoa da, baina frogak analitikoa izan behar du. Ohartu diagonalak funtzio jakin batzuen grafikoak ere badirela! Pentsatu zer esan nahi duen bi grafiko ebakitzeak.)

    (b) Propietate hau orokortu egin daiteke; izan ere, g jarraitua bada $[0,1]$-en eta $g(0) = 0, g(1) = 1$ edo $g(0) = 1, g(1) = 0$ bada, orduan f-ren grafikoak g-rena ebakiko du.



Karratuaren diagonalak, marra etenez, eta (b) ataleko g funtziorako adibide bat, marra jarraituz.

18. Funtzio baten eten-puntuetan pentsatzen dugunean, askotan eten puntu bakar bat (edo kopuru finitu bat) etortzen zaigu burura. Esfortzu askorik gabe, eten-puntu kopuru infinitu zenbakigarria ere lor dezakegu (gogoratu $[x]$ funtzioa).

    (a) Froga ezazu
    $$\mathbb{1}_{\mathbb{Q}}(x) = \begin{cases} 1, & x \in \mathbb{Q}, \\ 0, & x \notin \mathbb{Q} \end{cases}$$
    funtzioa ez dela jarraitua inon. Beste hitzekin esanda, puntu guztiak f-ren eten-puntuak dira. Funtzio hau zenbaki arrazionalen funtzio karakteristikoa da (orain edozein A multzorako badakizu zein den bere funtzio karakteristikoa, $\mathbb{1}_A$) eta **Dirichlet-en funtzio** izenez ere ezagutzen da.



    (b) Goiko f funtzioan eta $g(x) = x$ funtzioan oinarrituta, sortu 0 puntuan bakarrik jarraitua den h funtzioa. Honela, jarraitutasun puntu bakar bat duen funtzioa eraikiko dugu.